

# GASTEIZ

BAT, BI EDO HIRU EGUNETAN

**VITORIA  
GASTEIZ** !  
turismo  
& convention bureau

*Joan-etorri bat  
munduko hiri berdera*



Euskal enogastronomia dastatzeko  
eta mila urteko historiaz gozatzeko  
helmuga naturala

# GASTEIZ

## Gozatu Green Hiriburuaz!



Andre Mari Zuriaren Plaza

**G**asteiz berez da harrigarria. Europan, berdeguneen azalera handienetakoa duen hiria da; bai pasieran ibiltzeko, korrika egiteko edo bizikletaz ibiltzeko, bai hegaztiak ikusteko, bai zaldiz ibiltzeko.

'European Green Capital 2012'

sariak, 2016tik Turismo Helmuga Jasangarria izateak eta 'Global Green City 2019' izendapenak, nazioarte mailan ingurumenarekin konpromiso handienetakoa duen hirietako bat dela baieztatzen dute. Zatoz Gasteiz ezagutzera!



Eraztun Berdea

**Festak eta kultur-adierazpenak.** Goi-mailako proposamenak eskaintzen ditu ekitaldien egutegiak. Adibidez, Jazzaren Nazioarteko Jaialdia, Azkena Rock Festival, Magialdia, Kaldearte (arteak kalean), Nazioarteko Antzerki Jaialdia eta FestVal-a (telebista) daude. Baita kirol-txapelketak ere; adibidez: Martin Fiz maratoia edo Gasteizko Ironmana. Eta, jakina, gure kulturaz gozatzeko uneak: herri-kirolak, folklorea, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak (Arabako zaindariak), Santiago eguna eta Andre Maria Zuriaren festak ahaztu gabe, non penintsularen iparraldeko jai-giro onenetako bat bizitu ahalko duzun.



Muralismoa

**Ondare historikoa.** Gasteizko Erdigune Historikoa monumentu-multzo izendatu zuten 1997an; bere horretan kontserbatzen du Erdi Aroko trazadura,

